

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakaria Faltzesko MEP enpresaren fabrikaren irekiera-ekitaldira joan da

*Fabrikari polimeroen aparrik eraldatzen dituzte aerosorgailuen hegaletan erabiltzeko*

Miércoles, 04 de abril de 2012

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakaria [Mecanización de Estructuras Poliméricas \(MEP\)](#) taldearen fabrikaren irekiera-ekitaldian izan da gaur goizean. Fabrikari, [polimero termoplastikoak](#) mekanikoki eraldatzen dituzte energia eolikoaren aerosorgailuen hegaletan erabiltzeko.

Fabrikari 40 langile daude eta 6.000 metro koadroko nabea hartzen du Faltzesko La Vergalada industriagunean. Han 4,5 milioi euroko inbertsioa egin da instalazio eta makinatarako. Nafarroako Gobernuak 769.212 euroko laguntza eman du inbertsiorako.

Enpresaren ekoizpen-katean material plastikoak tratatzeko hainbat prozesu mekaniko burutzen dira: trazabilitatea, mozketa bertikal eta inklinatuak, kolatzeak, fresaketak, arteketak eta zulaketak, enbalajea, gaitasun handiko labeak eta paketatzea. Enpresaren lehiakortasunaren oinarria giza baliabideen maila teknikoa da, eta bezeroetako batzuk Acciona, Gamesa eta Vestas dira, enpresak esan duenaren arabera.

Barcina Lehendakariak egin duen mintzaldian nabarmendu du MEP enpresa lehiakorra dela eta prest dagoela jarduera garatzen jarraitzeko, bereziki energia berriztagarrien sektorean zalantzazkoa den gaur egungo egoera konplexua izanda ere.

Lehendakariak gogorarazi du energia berriztagarriek Nafarroan 4.413



Barcina Lehendakariak Faltzesko MEP enpresaren irekiera-ekitaldiko oroipen-plaka desestali du, Pedro Cirauqui enpresaren jabea eta Valentín García Faltzesko alkatea ondoan dituela



Lehendakaria, agintariak, zuzendariak eta MEPeko langileak Faltzesko fabrikaren irekiera-ekitaldian

milioi megawatt/ordu sortzen dituztela eta ia 468 milioi euroko diru-sarrerak eskualdeko ekonomian, hau da, eskualdeko barne-produktu gordinaren % 2,4, nekazaritzaren sektore osoaren ia pisu ekonomiko bera. Azken 15 urteetan, Nafarroan jardun diren sektoreko 100 enpresek 5.000 lanpostu sortu dituzte.

"Badakigu enpresek zein zentro teknologikoek burutzen duten ikerketak horretarako duen garrantzia. Une honetan energia berriztagarriak garatzeko babes-esparru egokiena zein izan behar den erabakitzeko eztabaida garrantzitsua dago. Eztabaida horretan, Goicoechea kontseilariak eta biok Espainiako Gobernuari jakinarazi diogu ziur gaudela energia berriztagarriak, energiaren eraginkortasuna eta CO2 emisioen murrizketa izango direla nahitaez edozein energia-ereduren ardatz nagusiak", esan du Nafarroako Lehendakariak.

Barcina Lehendakariarekin batera izan dira irekiera-ekitaldian Valentín García Faltzesko alkatea, Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria eta Pedro Cirauqui enpresaren jabea.